



Kolaborazioa: Mertxe (Barakaldoko euskara zerbitzua)

Imajinatuko zenukete Barakaldoko kaleetan euskarak presentzia handiagoa izatea? Zergatik ez? Azken finean gure esku dago euskara erabiltzea, euskaraz bizitzea eta euskara aldarrikatzea!



Baina, jakina, euskaldunok estres linguistiko handia pairatzen dugu. Zer egin behar dugu? Egunero etxetik atera bezain pronto inguratzen gaituen munduarekin haserretu? Nekagarri bezain etsigarria litzateke! Baina, agian, indarrak batuta, zertxobait lor genezake, aurrerapauso txikiak, bai, baina aurrera bagoaz, beti izango da pozgarria.

Barakaldoko Udalak joan den martxoaren 1ean "Mugi zaitetz euskararen alde" izeneko kanpaina jarri zuen abian, Barakaldoko merkataritza, ostalaritza eta hiriko enpresen sektorean euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko asmoz. Izan ere, sektore hau estrategikoa da

gure kaleetan euskarak presentzia handiagoa izan dezan, estrategikoa gure txikiek uler dezaten euskara ez dela bakarrik eskolan eta andereño edo maisuarekin erabiltzeko sasihizkuntza, estrategikoa barakaldarrok euskara geure senti dezagun.

Baina, nola lortuko dugu halako kanpainarik eskatu ez duen sektore batek horretan sinestea, horretan inplikatzeko eta haientzat ere onuragarria izan daitekeela ulertaraztea?

“Mugi zaitez euskararen alde!” kanpainaren helburu nagusia euskararen aldeko konpromisoak edo urratsak lortzea da. Edonola ere, oso ondo dakigu zein den Barakaldoren errealitate linguistikoa; hori dela eta, konpromiso maila ezberdinak planteatu dira:

- “Hemen kartelak euskaraz”, hau da, negozioetan jartzen diren karteletan euskararen presentzia bermatzeko konpromisoa. Horretan laguntzeko Barakaldoko euskara zerbitzuak doako itzulpen zerbitzua eskainiko du.
- “Zuk egin euskaraz, ni saiatuko naiz” ulermen mailako konpromisoa izango da. Agian gure merkatari edo ostalari batzuek euskara gutxi dakite edo erosoago sentitzen dira gaztelaniaz. Hori ez da arazo; berdin-berdin artatu ahal dituzte bezeroak gaztelaniaz, baina aukera emanda kontsumitzaileei, hala nahi badute, euskara erabiltzeko. Funtsean, bi hizkuntzen arteko bizikidetzat atsegina sustatzea.
- “Hemen euskaraz”, euskara dakiten merkatari edo ostalariei zuzendutako konpromisoa, euskarazko zerbitzua eskain dezaten. Konpromiso edo atxikimendu maila horiek ikusarazteko, euren negozioetan ikusgarri jar ditzaketen biniloak diseinatu dira, kontsumitzaileok ahalegin hori eskertu eta, bide batez, euskararen alde mugitzen diren negozioak errazago identifikatu ahal izateko.

Kanpainara atxikitzeko edo informazio gehiago eskatzeko bi bide daude:

- Deitu Barakaldoko Udalaren Euskara zerbitzura: 94 478 92 41
- Bidali mezu bat ondoko helbidera: euskara@barakaldo.org

Urrats txikiak emanda, Barakaldon sekulako aurrerapausoak lor ditzakegu eta, zalantzarik gabe, denok aterako ginateke irabazle. Baina, lortuko al dugu? Ala utopia hutsa izango da? Denborak esango du!